



IRAGARKIA

Alkateak 2026ko martxoaren 31n emandako dekretu baten bitartez Bergarako Udalak 2026. urterako enpresa edo ekintzaileentzako ezarri dituen dirulaguntza-programen deialdi irekia onartu da eta honen bidez argitaratzen da:

BERGARAKO UDALAK 2026. URTERAKO ENPRESA EDO EKINTZAILEENTZAKO EZARRI DITUEN DIRULAGUNTZA-PROGRAMEN DEIALDI IREKIA

ZIOEN AZALPENA

Bergarako Udalbatzak 2025eko urtarrilaren 27an egindako bileran onartu zuen Bergarako Udaleko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2025-2027. Hainbat lerro estrategiko jasotzen da Plan horretan, eta zortzigarrena da Sustapen Ekonomiko eta Soziala izenekoa.

Lerro horretarako 1. eta 2. ekintzak honakoak dira:

- Enpresa berriek lokalen alokairu-gastuei aurre egiteko dirulaguntza. Alokairu izeneko programa (1. ekintza)
- Enpresei edota ekintzaileei laguntzeko dirulaguntza. Eragin izeneko programa (2. ekintza)

Gauzak horrela, 2026ko urtealdirako onartutako udal aurrekontuetan, diru-izendapenak ezarri ditu enpresa edota ekintzaileei laguntzeko. Halaber, honako bi dirulaguntza-lerro hauek prestatu ditu, puntu bakoitzean zehazten diren helburuak lortzeko:

- Enpresa berriek lokalen alokairu-gastuei aurre egiteko dirulaguntza. Alokairu izeneko programa.

Dirulaguntza horrekin lortu nahi da, enpresa berriei jarduera abiarazten dutenean laguntza emateaz gain, herrian hutsik dauden lokalen erabilera berreskuratzea eta, bereziki, Bergarako Hirigune Historikoan hutsik dauden lokalen erabilera.

Aldi berean, belaunaldien arteko erreleboan ere lagundu nahi da, jarduerak martxan jarraitu dezaten; horrenbestez, eskualdatutako jardueretarako lokalen alokairuak ere diruz lagunduko dira.

Azkenik, kanpotik etorri eta Bergaran kokatu diren enpresei ere laguntza eman nahi zaie.

- Enpresei edota ekintzaileei laguntzeko dirulaguntza. Eragin izeneko programa.

Dirulaguntza horren helburua da herriko merkataritza- eta industria-eremuen funtzio ekonomikoa mantentzen eta areagotzen laguntzea.

Gauzak horrela, dirulaguntza-deialdia arautuko duten oinarri hauek prestatu dira.

Oinarrien egitura honakoa da:

- Oinarri orokorrak



Bi dirulaguntza-lerroetan izango dira aplikagarriak, ez bada oinarri espezifikoko bakoitzean bestelakorik zehazten.

- Oinarri espezifikoak

Dirulaguntza-lerro bakoitzari izango zaizkio aplikagarriak oinarri espezifikoak, eta dirulaguntza bakoitzaren berezitasunak zehazten dituzte; hala nola, dirulaguntza esleitu eta banatzeko irizpideak, aurrerakinak emateko aukera, aurkeztu beharreko agiriak eta abar.

ATARIKO TITULUA

1. artikulua. Xedea

Dirulaguntza hauen xedea da enpresei eta ekintzaileei jarraian zehazten diren dirulaguntzak ematea:

- Enpresa berriek lokala alokatzeko dirulaguntzak (Alokairu programa).
- Bergaran finkatuta dauden edo finkatu nahi duten enpresentzako dirulaguntzak (Eragin programa).

Dirulaguntza horiei hurrengo tituluko xedapen orokorretan jasotakoa aplikatuko zaie eta, hor zehaztuta ez dagoenean, dirulaguntza zehatza arautzen duten oinarri espezifikoetan jasotakoa. Kontraesanik balego, oinarri espezifikoetan jasotakoa lehenetsiko da.

I. TITULUA

OINARRI OROKORRAK

2. artikulua. Araudi aplikagarria

Dirulaguntza hauek emateko eta Udalaren eta onuradunen arteko harreman juridikoa zehazteko, bete egin beharko dira programa arautzen duten oinarriak eta dirulaguntza ematean indarrean dauden gainerako arauak.

Oinarri espezifikoek bestelako erregulazio bat berariaz ezartzen ez badute behintzat, oinarri orokor hauetan ezarritako xedapenak eta baldintzak aplikatuko zaizkie deialdi honen barruan Udalak onartutako laguntza- edo dirulaguntza-programa guztiei.

Oinarriotan (oinarri orokorretan edota espezifikoetan) xedatuta ez dagoen guztian, honako hauek aplikatuko dira: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra; 887/2006 Errege Dekretua; Bergarako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra; Bergarako Udalaren Udal Aurrekontuaren Araua; eta gai honen inguruan indarrean dauden gainerako arauak.

3. artikulua. Onuradunak

Arau espezifikoetan ez badago zehaztuta zeintzuk izan daitezkeen onuradunak, laguntza jaso ahal izango dute egoitza eta jardute-eremua Bergaran daukaten enpresek, deialdiaren

arabera, eta dirulaguntzak eskuratzeko 38/2003 Legean eta Bergarako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean ezarritako baldintzak betetzen badituzte, besteak beste, ordenantzaren 6. eta 8. artikulua.

Ez dira Bergarako Udalaren dirulaguntzen onuradun izango sexuaren aldetik edo 1/2023 Legegintzako Dekretuak (martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistatik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena) 3-1 artikuluan jasotako diskriminazio anizkoitzeko faktoreen aldetik diskriminatzaileak diren jarduerak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak. Era berean, ez dira onuradun izango sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio-zehapena edo zehapen penala jaso dutenak ere, dagokion zehapenean ezarritako aldian.

Ezin izango dira onuradun izan honako egoeratakoren batean aurkitzen diren pertsona fisiko edo juridikoak ere:

a) Epai irmoz zigortuta daudenak dirulaguntzak jasotzeko eskubiderik ez izatera, 38/2003 Legearen, Tratu Berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko uztailaren 12ko 15/2022 Legearen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren edo aplikagarri den beste zeinahi arauen arabera.

b) Indarreko legeriak botere publikoei dirulaguntzak ematea galarazten dien edozein inguruabarren pean daudenak.

4. artikulua. Eskabideak

Aurkezten diren laguntza-eskabideak Udalak prestatutako eskabide-ereduaren arabera idatziko dira. Eskabide-ereduak, orokorrak nahiz espezifikoak –dagozkion kasutan–, oinarri-arau hauetan datoz eranskin gisara, eta interesa duten guztiek eskuragarri izango dituzte, bai udal bulegoetan, bai Udalaren webgunean (www.bergara.eus).

Eskatzailearen legezko ordezkariak aurreko paragrafoan aipatutako eskabide-eredua bete eta sinatu beharko du.

5. artikulua. Eskabideak aurkezteko lekua

Eskaerak Udalaren Erregistro Elektronikoko Orokorrean aurkeztu beharko dira, oinarri espezifiko bakoitzean zehaztutako epean.

6. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Udalak horretarako prestatutako inprimakia erabilita egingo du eskaera eskatzaileak. Oinarri espezifikoetan zehazten da zein inprimaki erabili behar duen, eta horrekin batera beste zein dokumentu aurkeztu behar dituen.

Horri dagokionez, jakinarazten da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28. artikuluan ezarritakoaren arabera, interesdunek eskubidea dutela dokumenturik ez aurkezteko, honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Dagoeneko korporazioaren esku egotea; kasu horretan, ofizioz sartu ahal izango dira, baldin eta eskatzaileak eskabidean honako alderdi hauek adierazten baditu; eta emakida-prozeduraren instrukzioaz arduratzen den organoak egiaztatu egin beharko ditu:

1) Zein egunetan eta zein organo edo bulegotan aurkeztu edo, hala badagokio, eman ziren.

2) Aurkezpena eragin zuen prozeduraren izena. Diru-laguntzen deialdia denean, argitalpenaren epigrafea eta urtea zehaztuko dira.

Administrazioaren esku dauden datu eta dokumentuek indarraldia galduko dute, bai baliozkoak ziren aldia amaitu delako, bai prozeduran aurkeztu zirenetik bost urte baino gehiago igaro direlako. Nolanahi ere, Udalak interesdunari berriro aurkezteko eskatu ahal izango dio, ebazteko beharrezkoa den edozein alderdi behar bezala egiaztatu gabe gelditu bada.

b) Beste edozein administraziok eginak izatea. Kasu horretan, Bergarako Udaleko sail eskudunak zuzenean kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatze behar dituen datuak eta/edo dokumentuak, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu, arrazoiak emanez.

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du.

Hala ere, dokumentua eskuratzea materialki ezinezkoa den kasuetan, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dokumentua aurkezteko edo, bestela, dokumentu horren bidez egiaztatutako betekizunak beste bide batzuen bidez egiaztatze.

Eskaera aurkezteak esan nahi du pertsona edo entitate eskatzaileak oinarri hauetan eta espezifikoetan ezarritako baldintzak daudenetan onartzen dituela.

Ez da beste dokumentazio-motarik onartuko.

7. artikulua. Akatsak zuzentzea

Eskabideak edo harekin batera doan nahitaezko dokumentazioak akatsen bat duenean edo osatu barik dagoenean, interesdunek 10 eguneko epea izango dute antzemandako akatsak zuzentzeko, Udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Emandako epea akatsak zuzendu barik igarotzen bada, dirulaguntza-eskaeran atzera egin duela ulertuko da Udalak emandako ebazpenaren bitartez eta, beste izapidetik gabe, eskaera artxibatu egingo da.

8. artikulua. Erabakia hartzeko prozedura

Laguntza-programaren arabera, dagokion departamentuak edo udal arloak izango du aurkeztutako eskabideak tramitatzeko ardura; beraz, sail horien esku egongo da, haien eskumenen eremuan, proiektuak aztertu eta ebaluatzearen erantzukizuna.

Zerbitzu teknikoek txostena egin eta gai horretan eskumena duen batzordeak irizpena eman ondoren –hala badagokio–, onartzeko akordio-proposamena egingo dio organo eskudunari.

Alkatea izango da laguntzak edo dirulaguntzak emateko organo eskuduna.

9. artikulua. Erabakia

Laguntza edo dirulaguntza emateko edo ez emateko erabakia arrazoitu egin beharko da eta, edozelan ere, erabakia deialdiaren oinarri-arauetan jasotako irizpide objektiboen arabera hartu dela egiaztatu beharko da.

Eskatzaileari jakinaraziko zaion erabakian, berariaz agertuko dira xedea, dirulaguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda, zenbat emango zaien, nola ordainduko zaien, nola justifikatu behar duten, baita oinarri-arau orokor hauetan, dagozkion oinarri espezifikoetan edo dirulaguntza ematen den unean indarrean dauden arauetan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betebeharrak ere. Halaber, berariaz adieraziko da onartu ez diren edo ukatu diren eskabideen zerrenda.

10. artikulua. Publizitatea

Emandako dirulaguntza guztien publizitatea egingo du Udalak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikuluan xedatzen den bezala.

11. artikulua. Onuradunen obligazioak

Dirulaguntza emanez gero, oinarri-arau espezifikoetan jasotakoez gain, honako hauek ere onuradunaren betebeharrak izango dira:

- a) Dirulaguntza ematea oinarritu duen helburua betetzea, proiektua betearaztea, ekintza gauzatzea edo jokabidea hartzea.
- b) Dirulaguntza eman duen organoari honako hauek justifikatzea: betebeharrak eta baldintzak bete izana, ekintza gauzatu izana eta dirulaguntza jaso edo erabiltzearen helburua bete izana.
- c) Dirulaguntza ematen duen organoak eta estatuko nahiz erkidegoko beste kontrol-organo eskudun batzuek egin ditzaketen finantza arloko egiaztatze- eta kontrol-jarduketak onartzea, eta jarduketa horietarako eskatutako informazioa ematea.
- d) Dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako ekintzak finantzatzen dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bitarteko batzuk lortu izana. Jakinarazpena egin beharko da horren berri izan eta berehala eta, edozelan ere, funtsei emandako erabilpena justifikatu baino lehen.
- e) Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean egotea.
- f) Bergarako Udalarekin ez izatea inolako zorrik, eta egunean egotea betebeharrak fiskaletan eta zergen, tasen eta prezio publikoen ordainketan. Bergarako Udalak ofizioz egiaztatuko du ea pertsona edo entitate eskatzailea erakunde honekiko egunean dagoen.
- g) Jasotako funtsak zertan erabili diren egiaztatzeko dokumentuak gordetzea, gutxienez sei urtez, bai eta dokumentu elektronikoak ere, egiaztatze- eta kontrol-jarduketak burutu daitezen.
- h) Jasotako funtsak itzultzea oinarri hauetan aurreikusitako kasuetan edota indarrean dagoen gainontzeko legediak jasotzen dituen kasuetan.
- i) Diruz lagundutako jarduera garatzeko beharrezko baimen guztiak lortzea, eta baimen horien xedapenak betetzea.
- j) Jardueraren garapenari buruzko informazioa ematea, Udalak jarraipena egin dezan edo harekin kolaboratu ahal izateko.
- k) Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero, dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea.



l) Sexuaren aldagaia sistematikoki txertatzea Udalari dirulaguntza justifikatzeko aurkeztu beharreko txostenetan.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra aplikatuz, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarria aplikatuz eta, oro har, 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuz, dirulaguntza hauek kudeatzeko ez da beharrezkoa izango interesdunaren baimena, eta Udalak, bere eskumenak erabiliz, datuen zehaztasuna egiaztatzeko behar beste egiaztapen egin ahal izango du, bai eta bere esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak kontsultatu eta eskuratu ere.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

- Interesdunak Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak beteta ote dituen. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ere beteta ote dituen.

Interesdunak, era arrazoituan, bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du.

12. artikulua. Eskabideak baloratzeko irizpideak

Eskabideak baloratzeko, laguntza-programa bakoitzaren oinarri-arau espezifikoetan (II. tituluaren dagokion kapituluaren) jasotako irizpideak aplikatuko dira.

13. artikulua. Diruz laguntzeko gastu-kontzeptuak

Diruz laguntzeko gastutzat joko dira, diruz lagundutako ekintzaren edo proiektuaren izaerari erantzuteaz gain, dirulaguntzak arautzeko oinarriek ezarritako epean egin direnak, ez baldin badute oinarri espezifikoek beste zeozer zehazten.

Halaber, gastu bat diruz laguntzeko, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikuluan azpikontratatzeko eskatutako betekizunei dagokienez xedatutakoa bete behar da, bai eta legezko testu beraren 31. artikuluan ezarritakoa ere.

14. artikulua. Gehienezko diru-izendapena

Deialdi honen oinarri-arau espezifikoetan zehazten da zer diru-kopuru esleitu zaion programa bakoitzari, bai eta handitu daitekeen edo ez ere.

Edozelan ere, oro har, eta oinarri-arau espezifikoetan kontrakorik xedatu ezean, aurrekontu-kopuru horrek muga-izaera izango du eta ezin izango da handitu ekitaldian bertan.

15. artikulua. Aldi berean beste laguntza batzuk jasotzeko aukera

Oro har, eta laguntza-programa bakoitzaren oinarri-arauek kontrakorik xedatu ezean, onartu egiten da udal dirulaguntza eta beste finantza-bide batzuk aldi berean eta batera eskuratzeko aukera. Finantza-bide horiek izan daitezke bai beste administrazio batzuetatik, partikularretatik edo abarretik jasotako dirulaguntzak, bai garatu nahi den proiektu edo jarduera finantzatzeko ezarritako ekarpenak edo kuotak.

16. artikulua. Finantzaketa-mugak

Dirulaguntza honetaz gainera beste finantza-bide batzuk lortuz gero, eta oinarri-arau espezifikoek bestelakorik ezarri ezean, finantzaketa-muga egindako gastuaren % 100a izango da; hau da, udalaren dirulaguntzarekin ezin izango da inondik ere gain-finantzaketarik egon, salbuespen honekin: Horri dagokionez, eta dirulaguntzak emateko udal akordioetan berariaz bestelako doitzeko edo erregularizazio sistemarik adierazten ez bada, Udalak, dirulaguntzaren bukaerako ordainketa edo likidazioa egiterakoan, gain-finantzaketarik gerta ez dadin, zuzendu egingo du ordaindu beharreko kopurua, benetan izandako gastuen eta diru-sarreraren arabera, eta, hala badagokio, gerta daiteke ordaindutako aurrerakinaren zati bat edo aurrerakin osoa itzuli behar izatea onuradunak, edo berari itzuli behar izatea, betiere lehen aipatutako salbuespeneko baldintzak ez baditu betetzen.

17. artikulua. Dirulaguntza ordaintzeko modua

Dirulaguntza zertarako eman zen eta helburu hori bete izana justifikatu eta gero ordainduko du Udalak dirulaguntza. Horretarako, aurrekontuan jasotako eta organo eskudunek onartutako kopuruak eta portzentajeak hartuko ditu erreferentziatzat. Dirulaguntza entitate titular eskatzaileari ordainduko zaio, eskabide-ereduan hark emandako datuen arabera.

18. artikulua. Dirulaguntza gutxitzea

Aurkeztutako likidazioa hasierako gastu-aurrekontua baino txikiagoa bada, oinarri-arau espezifikoek beste arauketarik xedatu ezean, dirulaguntza gutxitu egingo da koefiziente zuzentzaile bat aplikatuz. Koefiziente hori benetan erabilitako kopuruaren portzentajea izango da, hasieran eskatu eta onartutako kopuruarekiko.

19. artikulua. Dirulaguntzen justifikazioa

1. Dirulaguntzen onuradunek nahitaez justifikatu beharko dute jasotako dirua dirulaguntza ematearen oinarrian zegoen helbururako erabili dutela.
2. Dirulaguntzaren justifikazioa egingo da oinarri espezifikoetan jasotako epean eta moduan.

20. artikulua. Obligazioak ez betetzea. Itzulketa-kasuak

1.- Dirulaguntzen 38/2003 Legearen 36. artikuluan xedatutakoez gain, dirulaguntza emateko erabakiaren deuseztasun nahiz deuseztagarritasun kasuetan, bidezkoa izango da jasotako dirua itzularaztea eta berandutza-interesa eskatzea (dirulaguntza edo laguntza ordaindu den unetik aurrerakoa), ondorengo egoeraren bat gertatuz gero:

- a. Jasotako funtsak zertarako erabili diren justifikatzeko obligazioa ez betetzea, edo behar beste ez justifikatzea, ezarritako eran eta epeetan.
- b. Dirulaguntza eskuratu izana horretarako eskatutako baldintzak faltsutuz, edo dirulaguntza jasotzea galaraziko zuketena baldintzak ezkutatuz.
- c. Dirulaguntza ematerakoan onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.
- d. Dirulaguntza emateko oinarri den xedea ez betetzea, osoki edo zati batean.

Horri dagokionez, eta udalak berariaz besterik erabaki ezean, dirulaguntza ematerakoan onartu ziren jarduera edo programen % 50 baino gutxiago gauzatu izana bete gabeko jarduera edo programatzat joko da.

e. Organo eskudunen kontrol-jarduerei uko egitea edo oztopoak jartzea.

f. Zabalkunde-neurriak hartzeko betebeharra betetzen ez bada.

g. Finantzak egiaztatzeko eta kontrolatzeko jardueri aurka egiten bazaie, aitzakiak nahiz oztopoak jartzen bazaizkie edo uko egiten bazaie, edota kontabilitate-, erregistro-nahiz kontserbazio-betebeharrak betetzen ez badira eta, horren ondorioz, ezin bada egiaztatu jasotako funtsei zein erabilera eman zaien edo dirulaguntzaren helburua bete den.

h. Administrazioak onuradunei ezarritako betebeharrak eta horiek hartutako konpromisoak betetzen ez badira.

i. Laguntza edo dirulaguntza bakoitzaren oinarri espezifikoetan xedatutako gainerako kasuetan.

2.- Diru-itzulketak Udalak zehaztutako epeetan egin ezean, itzuli beharreko kopuruak premiamendu bidez ordainarazi daitezke.

21. artikulua. Dirulaguntza itzularazteko prozedura

1. Dirulaguntza eman zuen organoak berak izango du eskumena jaso den zenbateko osoaren edo zati baten itzulketa exijitzeko erabakia hartzeko.

2. Dirulaguntza itzularazteko jarraituko den prozedura izango da Dirulaguntzen Ordenantza Orokorreko 65. eta hurrengo artikuluetan jasotzen dena.

3. Itzultzeko prozedurari arau-hauste administratibo baten ondorioz ekin bazaio, horren berri emango zaio organo eskudunari, dagokion zigor-prozedurari hasiera eman diezaion.

22. artikulua. Dirulaguntza itzularazteko modua

1. Itzultzeko prozedura dirulaguntzaren eskatzaile edo onuradun gisa agertzen diren pertsona fisikoen aurka zuzenduko da.

2. Dirulaguntza gehi dagozkion berandutza-interesak itzultzeko erantzukizun solidarioa edo subsidiarioa erabakitzeko, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 40. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

23. artikulua. Bermeak

Oinarri-arau espezifikoek edo dirulaguntza emateko erabaki zehatzek besterik xedatu ezean, ez da beharrezkotzat jotzen emandako laguntzengatik Udalaren aldeko bermerik eskatzea.

24. artikulua. Datu pertsonalen tratamendua

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra aplikatuz, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarria aplikatuz eta, oro har,

39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuz, dirulaguntza hauek kudeatzeko ez da beharrezkoa izango interesdunaren baimena, eta Udalak bere eskumenak erabiliz datuen zehaztasuna egiaztatze behar beste egiaztapen egin ahal izango du, bai eta bere esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak kontsultatu eta eskuratu ere.

25. artikulua. Oinarri-arauen interpretazioa

Oinarri-arau hauek interpretatzerakoan sor daitezkeen zalantzak alkateak ebatziko ditu, bera baita deialdi hau onartzeko eskumena duen organoa, dena delako Batzorde Informatzaileak, hala badagokio, aldez aurretik programaren arabera txostena egin eta gero.

26. artikulua. Oinarrien aurkako errekursoak

Oinarri-arau hauek onartzeko erabakiaren aurka, zeinak administrazio bidea amaitzen duen, berraztertze errekurtoa jarri ahal izango da nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtoaren aurretik eta hilabeteko epean; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtoa jarri ahal izango da zuzenean Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean. Aipatutako bi epeak oinarri-arau hauen deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita zenbatuko dira.

Horrek guztiak ez du esan nahi, ordea, bidezkotzat jotzen den beste edozein egintza edo errekurto jarri ezingo denik.

II. TITULUA

OINARRI ESPEZIFIKOAK

Titulu honetan, dirulaguntzak emateko eskumena duten sailei dagozkien oinarri-arau espezifikoak jasotzen dira, jarraian jasotzen den hurrenkerarekin.

1. kapitulua- Enpresa berriek lokala alokatzeko dirulaguntza (Alokairu programa).
2. kapitulua- Bergaran finkatuta dauden enpresentzako dirulaguntzak (Eragin programa).

1. KAPITULUA

Enpresa berriek lokala alokatzeko dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri espezifikoak

27. artikulua. Xedea



Oinarri espezifiko hauen xedea da Bergarako Udalak enpresa berriei alokairua ordaintzeko emango dizkien dirulaguntzak arautzea, kontuan hartuta oinarri orokorrekin diotena ere.

Dirulaguntza hauek Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzko Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 Erregelamenduaren menpe daude (EBAO, L 352 zk., 2013/12/24koa). Dirulaguntza hauek «*de minimis*» dira; izan ere, pertsona juridiko edo fisiko bati emandako dirulaguntza osoak ez du gaindituko 200.000 euroko muga hiru zerga-ekitaldiren edozein alditan.

28. artikulua. Diru-izendapena

Dirulaguntza-deialdi honetarako 20.000 euro daude izendatuta 2026 - 3900.481.433.00.01 partidan.

29. artikulua. Departamentu arduraduna

Garapen Sozio-ekonomiko eta Enpleguko Departamentua.

30. artikulua. Onuradunak

30.1.- Laguntza jaso ahal izango dute, Oinarri Orokoretako 3. artikuluan zehazten diren baldintzak betetzeaz gain, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita 2026ko abenduaren 1era arte jarraian jasotako egoeretako batean dauden enpresek, baita Bergaran enpresa martxan jartzeko asmoa dutenek ere:

- Bergaran sortu eta Bergaran egoitza izanda, jardun-eremua gutxienez Bergaran daukaten enpresek.
- Kanpotik Bergarara etorritako enpresek.
- Bergaran eskualdatutako jardueren titular berriek.

Halaber, jaso ahal izango dute 2025eko urtarrilaren 1etik eta dirulaguntza hauen deialdia argitaratu arte aurreko pasartean jasotako egoera batean egon diren eta eskaera egiterako unean martxan jarraitzen duten enpresek.

30.2.- Alokairu-laguntza hau eskuratu eta jaso ahal izateko, eskatzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Eskaera egiten den unean egoitza soziala Bergarako udalerrian izatea, eta Bergaran mantentzea gutxienez hurrengo bi urteetan.
- b) Jarduera ekonomikoen gaineko zergan altan egotea Bergaran. Udalak ofizioz egiaztatuko du.
- c) Negozio-ekimenaren bideragarritasun-plan bat eginda izatea, Debagoieneko Garapen Ekonomikorako Agentziako Pertsonal Teknikoaren aldeko ebaluazioa jasotakoa.
- d) Hasierako plantilla hamar langile edo gutxiagokoa izatea.
- e) Udalari dirulaguntza eskatzean eta dirulaguntza jasotzen ari diren bitartean enpresa betebeharrak fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea; baita Bergarako Udalarekin ere.



- f) Irudi korporatiboa gutxienez euskaraz izatea.
- g) Webgunea izanez gero, jasoko den dirulaguntzaren azken ordainketarako gutxienez elebitan izatea.
- h) Kanpora begira egingo den komunikazioa gutxienez euskaraz izatea.
- i) Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan adierazitakoaren arabera, dirulaguntza jaso ezin izateko kausetako batean ez egotea.

Ez dira Bergarako Udalaren dirulaguntzen onuradun izango sexuaren aldetik edo 1/2023 Legegintzako Dekretuak (martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistatik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena) 3-1 artikuluan jasotako diskriminazio anizkoitzeko faktoreen aldetik diskriminatzaileak diren jarduerak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak. Era berean, ez dira onuradun izango sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio-zehapena edo zehapen penala jaso dutenak ere, dagokion zehapenean ezarritako aldiak.

Ezin izango dira onuradun izan honako egoeratakoren batean aurkitzen diren pertsona fisikoak edo juridikoak ere:

- a) Epai irmoz zigortuta daudenak dirulaguntzak jasotzeko eskubiderik ez izatera, 38/2003 Legearen, Tratu Berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko uztailaren 12ko 15/2022 Legearen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren edo aplikagarri den beste zeinahi arauen arabera.
- b) Indarreko legeriak botere publikoei dirulaguntzak ematea galarazten dien edozein inguruabarren pean daudenak.

Lokalek eta jarduerak, berriz, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Alokatzeko den lokalak eta han burutzen den jarduerak Bergarako Udalaren aurrean bere egoera erregularizatuta izatea gutxienez dirulaguntza jasotzen den bitartean. Udalak hori ofizioz egiaztatutako du.
- b) Lokalean zerbitzu- edo industria-jarduera bat burutzea.
- c) Bergarako udalerrian dagoen lokal pribatu bat alokairuan izatea.
- d) Jarduera berria izatea, eta eskualdaketa (traspasoa) baten ondorioz edota, kanpotik etorruta, Bergaran kokatu den enpresa bat izatea.

Ulertuko da eskualdaketa (traspasoa) egon dela baldin eta ondoren jasotako kasuetariko bat gertatu bada:

- 1.- Errentamendu-kontratuaren lagapena (zesioa) egin bada, 29/1994 Legearen 32. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz (29/1994 Legea, Hiri Errentamenduena).
- 2.- Lokalaren jabeak lokalaren errentamenduarekin batera negozioaren eskualdaketa (traspasoa) egin badu. Negozioaren eskualdaketa egon dela ulertuko da baldin eta lehen ematen ziren zerbitzu guztiak edo batzuk ematen badira edo lehen saltzen ziren produktu guztiak edo batzuk saltzen badira, eta bi hilabete baino epe motzagoa pasatu bada.
- 3.- Jardueraren titularra eta lokalaren errentaria izan dena hil edo jubilatuta ondoren, jarduerarekin haren oinordekoek jarraitzen badute.



4.- Jardueraren eta errentamenduaren titularra izan den sozietatea desegin ondoren, sozietate horren bazkide izandako batek (edo batzuek) jarduera berean jarraitzen badu(te).

e) Sexuaren aldetik edo 1/2023 Legegintzako Dekretuak (martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena) 3-1 artikuluan jasotako diskriminazio anizkoitzeko faktoreen aldetik diskriminatzaileak izan daitezkeen jarduerarik ez egitea.

31. artikulua. Laguntza-motak

Ondoren ezartzen dira emango diren gehieneko dirulaguntzak, hileko (BEZ kanpo)

1. urtean – Alokairu-kostuaren % 33,33a eta gehienez 200 euro hileko.

2. urtean – Alokairu-kostuaren % 20a eta gehienez 120 euro hileko.

Lokala Bergarako Hirigune Historikoko ondoren zehazten diren kaleren batean kokatuta balego, ordea, lehenengo urtean dirulaguntza %66,66koa izango da eta gehienez 400 eurokoa. Bigarren urtean, berriz, %40koa eta gehienez 240 eurokoa.

Hirigune Historikoko kale horiek honakoak dira: Bidekurutzeta, San Martin plaza, Barrenkalea, San Pedro, Mizpildi, Komenio, Artekalea, Goenkalea, Masterreka, Zubieta eta Arruriaga.

BEZa ez da diruz lagunduko.

32. artikulua. Dirulaguntza gehienez jaso daitekeen epea

Udalak emango duen dirulaguntza, gehienez ere, alokairua 24 hilabetetan ordaintzeko izango da.

33. artikulua. Eskabideak aurkezteko modua

Interesatuak laguntza-eskaera Udaleko Erregistro Elektronikoko Orokorrean aurkeztu beharko du, Udalak horretarako propio sortutako eskaera-inprimakia(k) erabilita. Ez da beste dokumenturik onartuko.

34. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea

Dirulaguntza hau eskatzeko ez da egongo eperik; beraz, dirulaguntza hau edozein unetan eskatu ahal izango da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrekontua agortu arte edo 2026ko abenduaren 1era arte. Dirulaguntza agortuko balitz, horren berri emango da webgunean, dirulaguntzen atalean argitaratutako iragarki baten bitartez.

Laguntza hau ez da bateragarria Udalak 2025tik hona emandako helburu berdineko beste edozein dirulaguntzarekin. Bestalde, enpresak behin bakarrik eta bakarrik lokal baterako jaso ahal izango du dirulaguntza hau.

35. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

- Enpresa eratu gabe balego:

- Enpresa berriek lokala alokatzeko dirulaguntza-eskaera (F0170 inprimakia).
- Eskaera beste pertsona baten izenean egiten bada, F0136 inprimakia.
- Eskatzailearen NAN.
- Enpresa-ideiaren Bideragarritasun Plana, Debagoieneko Garapen Ekonomikorako Agentziako teknikarien aldeko ebaluazio-dokumentuarekin.
- Alokairu-kontratuaren zirriborroa.
- Jarduera martxan jartzeko egutegia.

- Enpresa jadanik eratuta balego eta jarduera martxan:

- Enpresa berriek lokala alokatzeko dirulaguntza-eskaera (F0170 inprimakia).
- Eskaera beste pertsona baten izenean egiten bada, F0136 inprimakia.
- Enpresa-ideiaren Bideragarritasun Plana, Debagoieneko Garapen Ekonomikorako Agentziako teknikarien aldeko ebaluazio-dokumentuarekin.
- Eskaera egiten duen pertsona fisikoaren NAN.
- Eskatzailea pertsona juridikoa bada: eratze- edo aldaketa-eskritura (merkataritza-erregistroko idazpenaren arabera) eta identifikazio fiskaleko zenbakia (kopiak), eta enpresaren izenean eskaera egiten duen pertsona fisikoaren aldeko ahalorde notarialaren kopia.
- Autonomia bada, egindako inbertsioen justifikazioa.
- Alokairu-kontratua.
- Gizarte Segurantzaren enpresaren eta langileen altaren agiriak.

Edozein kasutan, Udalak ofizioz egiaztatuko du Bergarako Udalarekiko ordainketak egunean dituela eta jarduera burutu ahal izateko Bergarako Udalarekiko betebeharrak guztiak betetzen dituela.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

- Foru Ogasunak:

. Zerga-betebeharrak egunean izatea.

- Gizarte Segurantzak:

. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean egotea.

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

- Dagokion Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.

- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.

36. artikulua. Erabakia hartzeko prozedura

Jadanik jarduera martxan baldin badago, Udalak egiaztatuko du lokalak eta jarduerak benetan egoera erregularizatuta dutela eta eskatzaileak jarduera garatzeko baldintzak betetzen dituela, eta txosten teknikoa egin ondoren, dagokion Udal Batzorde Informatzaileak dirulaguntza emateko proposamena bidaliko dio alkateari edo hark eskumena eskuordetu dion organoari, erabakia har dezan.

Jarduera martxan ez balego, Udalak begiratuko du martxan jarri nahi den jarduera burutu daitekeen azaldutako lokalean eta, posible balitz, eta txosten teknikoa egin ondoren, Udal Batzorde Informatzaileak dirulaguntza emateko proposamena bidaliko dio alkateari edo hark eskumena eskuordetu dion organoari, erabakia har dezan. Erabakian zehaztuko da lokalak eta jarduerak benetan egoera erregularizatuta dutela egiaztatze epea; epe hori 6 hilabetekoa izango da gehienez, justifikatutako arrazoiren bat ez balego. Dirulaguntza ez da ordainduko lokalaren eta jardueraren egoera erregularizatu eta enpresa bat martxan jartzeko garatu beharreko beste tramite guztiak egin direla frogatu, jarduera martxan jarri eta martxan jarri denetik 6 hilabete pasa arte.

Jarduera ezin izango balitz garatu ekintzaileak aurreikusitako lokalean hirigintzako baldintzak betetzen ez dituelako, dirulaguntza eskaera ez da onartuko.

Erabakia hartzeko hiru hilabeteko epea izango du gehienez –eskaera dokumentazio guztiarekin aurkezten denetik kontatzen hasita–.

Epe hori igaro ondoren Udalak eskaeraren baten gainean berariazko erabakirik hartuko ez balu, ulertu ahal izango da ez dela eskaera hori onartu.

Erabakiaren proposamena formulatu aurretik, Udalak beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du, dagokion departamentuko arduradunak egindako errekerimenduaren bitartez.

37. artikulua. Erabakiaren edukia

Eskatzaileari jakinaraziko zaion dirulaguntza emateko ebazpenak adierazi behar du laguntza ukatzen edo ematen zaion; eta ematen bazaio, zenbateko dirulaguntza ematen zaion, nola ordainduko zaion eta nola justifikatu behar dituen oinarri hauetan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betebeharrak.

Dirulaguntza onartutzat joko da, emandako dirulaguntzaren jakinarazpena jasotzen duen hurrengo egunetik kontatzen hasi eta 15 eguneko epean dirulaguntzari uko egiteko idatzirik aurkezten ez badu.

38. artikulua. Onuradunen obligazioak

Honako hauek dira onuradunen betebeharrak, oinarri orokorretako 13. artikuluan jasotakoez gain:

- a) Diruz lagunduko den jarduera garatzeko beharrezko baimenak eskuratzea, eta baimen horien xedapenak betetzea.

- b) Lokalaren jabeari egindako ordainketen agiriak sei hiletik behin aurkeztea. Agiriak aurkeztu ondoren, Udalak dirulaguntza ordainduko du enpresak zehaztutako kontu korrontean.

39. artikulua. Dirulaguntza ordaintzeko era eta epeak

Ordainketak egingo dira erabakia hartu ondoren eta jarduera martxan jarri denetik gutxienez 6 hilabeteko epea pasa ondoren. Hortik aurrerakoak ere 6 hilabetetik behin egingo dira.

Ordainketak egiteko, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Alokairuaren aurreko 6 hilabeteetako erreziboak eta ordainketa-agiriak.
- Helburu berarekin jasotako beste dirulaguntzen agiriak, jaso badira; eta horrelakorik jaso ez balitz, zinpeko aitortpena.

Halaber, Udalak ofizioz egiaztatuko du Bergarako Udalarekiko ordainketak egunean dituela eta jarduera burutu ahal izateko Bergarako Udalarekiko betebeharrak guztiak betetzen dituela.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

- Foru Ogasunak:
 - . Zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte Segurantzak:
 - . Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean egotea.

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

- Dagokion Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.

2. KAPITULUA

Bergaran finkatuta dauden edo finkatu nahi diren enpresentzako dirulaguntzak (Eragin programa) arautuko dituzten oinarri espezifikoak

40. artikulua. Xedea

Oinarri hauen xedea da, Eragin programaren barruan, 50 langile edo hortik behera dituzten Bergarako enpresentzako dirulaguntzak arautzea, herriko merkataritza- eta industria-eremuetako funtzio ekonomikoa mantentzen eta areagotzen laguntzeko helburuz.

Dirulaguntza-programa horren barruan, hiru laguntza-mota hauek emango dira:

- **Ekintzailea:** Enpresa berria sortzean egindako inbertsioei aurre egiten laguntzeko. Enpresa berritza joko da 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera eratu dena.
- **Azterlana:** Azterlan teknologikoak egiten laguntzeko.
- **Erreleboa:** Enpresen (pertsona fisiko zein juridikoen) enpresa-ondorengotza/erreleboa egiten laguntzeko.



Dirulaguntza hauek 38/2003 Lege Orokorraren eta lege hori garatzen duen gainontzeko araudiaren menpe daude.

41. artikulua. Dirulaguntzari egotzi zaion aurrekontu-kreditua

Dirulaguntza hauek emateko 30.000 euro daude 2026 - 3900.481.433.00.01 partidan, eta 40. artikuluan aurreikusitako hiru laguntza-motatako bakoitzak 10.000 euro izango ditu.

Dena den, laguntza-mota baterako gordetako diru dena gastatuko ez balitz, beste motetako laguntzak emateko erabili ahal izango da.

42. artikulua. Departamentu arduraduna

Garapen Sozio-ekonomiko eta Enpleguko Departamentua.

43. artikulua. Diruz lagun daitezkeen gastuak:

Ekintzailearen dirulaguntza:

Enpresa berria lehenengo 6 hilabeteetan abian jartzeko eta funtzionatzeko diruz lagunduko diren gastuak honako hauek dira:

- Jarduera ekonomikoari lotutako inbertsioak.
- Webguneak eta sare sozialak diseinatzearen kostuak eta enpresa berriaren sustapen-zerbitzuen eta komunikazio-gastuen kostuak (kanpainak, errotulazioa, publizitatea...).

Dirulaguntzaren zenbatekoa diruz lagun daitezkeen gastuen % 90ekoa izango da, eta gehienez ere 2.000 euroko zenbatekoarekin.

Azterlanaren dirulaguntza:

Diagnostiko teknologikoaren kostuaren portzentaje bat lagunduko da diruz, langile-kopuruaren arabera, muga hauekin:

- Azken 6 hilabeteetan 12 langile baino gutxiagoko batez besteko plantilla izan duten enpresen kasuan, laguntza % 90ekoa eta gehienez 3.000 eurokoa izango da.
- Azken 6 hilabeteetan 12 eta 25 langile bitarteko batez besteko plantilla izan duten enpresen kasuan, laguntza gehienez % 85ekoa eta gehienez 3.000 eurokoa izango da.
- Azken 6 hilabeteetan 25 langile baino gehiagoko batez besteko plantilla izan duten enpresen kasuan, laguntza gehienez % 80koa eta 3.000 eurokoa izango da.
- Dirulaguntza % 100era iritsi ahal izango da (betiere gehienez 3.000 eurokoa izanik), baldin eta eskaeretan jasagarritasun-diagnostikoa ere sartzen bada honako helburuarekin: identifikatzea zein neurri hartu behar diren ingurumen-inpaktua murrizteko, urak arazteko, ur-kontsumoa gutxitzeko, argindar-kontsumoa gutxitzeko, hondakinak murrizteko eta abarretarako.

Diruz lagun daitezkeen azterlanak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera egin beharko dira, eta 2026eko abenduaren 1a baino lehen amaitu.

Erreleborako dirulaguntza:

- Errelebo-protokoloa egitea, enpresaren ezaguera eta jakintzaren transmisioa azpimarratuz.

- Erreleboa egiteko beharrezkoa den aholkularitza (fiskala, laborala, kontabilitate arlokoa edo administratiboa).
- Dirulaguntzaren zenbatekoa diruz lagun daitezkeen gastuen % 90ekoa izango da, gehienez 3.000 euro arte. Hala ere, aholkularitza-enpresa kontratatzen bada errelebo-protokoloa egiten laguntzeko, baina azkenean ez bada gauzatzen, laguntza izango da gastuen % 90ekoa eta gehienez 1.500 eurokoa.

Diruz lagun daitezkeen errelebo-protokoloak 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera egindakoak eta 2026ko abenduaren 1a baino lehen amaitutakoak izango dira.

44. artikulua. Onuradunek dirulaguntza eskuratzeko bete beharreko baldintzak

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak jaso ahal izateko, Oinarri Orokorretako 3. artikuluan zehazten diren baldintzak betetzeaz gain, enpresek (pertsona fisiko zein juridikoek) honako baldintzak bete beharko dituzte:

44.1.- Baldintza orokorrak

- Lantokia Bergaran egotea, baita enpresaren egoitza soziala eta fiskala ere.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zergan altan egotea Bergaran.
- Betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea, baita Bergarako Udalarekiko betebeharretan ere.
- Jarduera garatzeko lokalak eta han burutzen den jarduerak Bergarako Udalaren aurrean egoera erregularizatuta izatea.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan adierazitakoaren arabera, dirulaguntza jaso ezin izateko kausetako batean ez egotea.

Ez dira Bergarako Udalaren dirulaguntzen onuradun izango sexuaren aldetik edo 1/2023 Legegintzako Dekretuak (martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena) 3-1 artikuluan jasotako diskriminazio anizkoitzeko faktoreen aldetik diskriminatzaileak diren jarduerak egiten dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak. Era berean, ez dira onuradun izango sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio-zehapena edo zehapen penala jaso dutenak ere, dagokion zehapenean ezarritako aldian.

Ezin izango dira onuradun izan honako egoeratakoren batean aurkitzen diren pertsona fisiko edo juridikoak ere:

- a) Epai irmoz zigortuta daudenak dirulaguntzak jasotzeko eskubiderik ez izatera, 38/2003 Legearen, Tratu Berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko uztailaren 12ko 15/2022 Legearen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren edo aplikagarri den beste zeinahi arauaren arabera.
- b) Indarreko legeriak botere publikoei dirulaguntzak ematea galarazten dien edozein inguruabarren pean daudenak.

44.2.- Baldintza espezifikokoak

Aurreko 44.1 puntuan jasotako baldintzez gain, jarraian laguntza-mota bakoitzerako zehaztutako baldintzak ere bete beharko dira. Zehazki honako hauek:

EKINTZAILEA:

- a.- Enpresa jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda egotea 2025eko urtarrilaren 1a eta 2026ko abenduaren 1a bitartean.
- b - Proiektuak gutxienez lanpostu berri bat sortu izan behar du eskaera egin aurreko 6 hilabeteetan zehar, lanaldi osokoa edo partzialekoa. Lanpostu hori proiektuaren sustatzailearena ere izan daiteke.
- c- Enpresa sortutako hasierako 6 hilabeteetan plantillan 50 langile edo gutxiago eduki izana.
- d- Bideragarritasun Plan bat eginda izatea, Debagoieneko Garapen Agentziako teknikarien aldeko ebaluazioa jasota duena.

AZTERLANA:

- a - Azken 6 hilabeteetan plantillan 50 langile edo gutxiago eduki izana.
- b- Udalaren laguntza jasoz gero, dirulaguntzaren justifikazioarekin batera, Udalaren laguntzarekin egindako euskararen egoeraren inguruko balorazioa Udalak prestatutako inprimakian aurkezteko konpromisoa hartzea.

ERRELEBOA:

- a - Azken 6 hilabeteetan plantillan 50 langile edo gutxiago eduki izana.
- b.- Enpresa-ondorengotza/erreleboa prestatzen hasita egotea, 2025eko urtariletik aurrera, enpresak kontratatutako aholkularitza baten bidez.

45. artikulua. Eskaera aurkezteko modua

Interesatuak laguntza-eskaera Udaleko Erregistro Elektronikoko Orokorrean aurkeztu beharko du, Udalak horretarako propio sortutako eskaera-inprimakia erabilita. Ez da beste dokumenturik onartuko.

Eskaera aurkezteak esan nahi du eskatzaileak oinarri hauetan ezarritako baldintzak bete-bete onartzen dituela.

46. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea

Dirulaguntza hau eskatzeko ez da egongo eperik; beraz, dirulaguntza hau edozein unetan eskatu ahal izango da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik, aurrekontua agortu arte edo 2026ko abenduaren 1era arte. Dirulaguntza agortuko balitz, horren berri emango da webgunean, dirulaguntzen atalean argitaratutako iragarki baten bitartez.

47. artikulua. Dirulaguntza eskatzeko aurkeztu beharreko agiriak

Eskatzen den dirulaguntza oinarri hauetako edozein izanda ere, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- "Eragin" dirulaguntza-programaren eskaera (F0117A inprimakia), behar bezala beteta eta sinatuta.



- Eskaera beste pertsona baten izenean egiten bada, F0136 inprimakia.
- Enpresa pertsona fisikoa bada, NAN. Enpresa pertsona juridikoa bada, berriz, eratze-edo aldaketa-eskritura (merkataritza erregistroko idazpenaren arabera) eta identifikazio fiskaleko zenbakia, eta eskaera egiten duen pertsonaren aldeko ahalorde notariala. Ahalorde hori behar bezala inskribatu behar da, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan edo, ordezkartza pertsonala izanez gero, dokumentu publikoan.

Edozein kasutan, Udalak ofizioz egiaztatuko du Bergarako Udalarekiko ordainketak egunean dituela eta jarduera burutu ahal izateko Bergarako Udalarekiko betebeharrak guztiak betetzen dituela.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

- Foru Ogasunak:
 - . Zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte Segurantzak:
 - . Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean egotea.

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Dagokion Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.

Horiez gain, eskatutako laguntzaren arabera, honako dokumentu hauek ere aurkeztu beharko dira:

EKINTZAILEA

- Gizarte Segurantzako RNT agirien fotokopiak, enpresa sortutako hasierako 6 hilabeteetakoak.
- Egingako inbertsioen aurrekontuak edota fakturak.
- Webguneak eta sare sozialak diseinatzeko aurrekontuak edota fakturak.

AZTERLANA

- Gizarte Segurantzako RNT agirien fotokopiak, deialdiaren aurreko 6 hilabeteetakoak.
- Egingo den azterlan teknologikoaren proposamena eta aurrekontuaren fotokopia.

ERRELEBOA

- Gizarte Segurantzako RNT agirien fotokopiak, deialdiaren aurreko 6 hilabeteetakoak.
- Egingo den errelebo-protokoloaren proposamena eta aurrekontua.

Enpresa batek baino gehiagok egingo duten proiektu komuna bada, enpresa bakoitzak eskaera bat egin beharko du, eta hor adierazi zein enpresarekin batera aurkeztu duen proiektu komuna.

48. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura

Udalak egiaztatuko du enpresa jarduera ekonomikoen gaineko zergan altan dagoela eta egunean, eta gainontzeko baldintzak ere betetzen dituela.

Dirulaguntza emateko prozedura zuzenean ematekoa izango da, eskatzen diren betebeharrak guztiak beteta eta dokumentazio guztia ere osatuta dagoela ziurtatu ondoren.

Dirulaguntzak emateko araubide honetan, aurrekontu-kreditua agortu eta eskabideak erantzuteke geratzen badira, organo eskudunak hala erabakiz gero, ebatzi ez diren eskaera horiei erantzuteko, dirulaguntzak egozten zaizkion aurrekontuaren kontu-saila gehitu egin daiteke.

Edozelan ere, aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, deialdian krediturik ez egoteagatik ebatzi ezin izan diren dirulaguntza-eskabideak hurrengo deialdian sar daitezke; kasu horretan, lehentasuna edukiko lukete tramitatzeke.

49. artikulua. Dirulaguntzak emateko irizpideak

Dirulaguntzak emateko prozedura honetan, espedienteak aurkeztu ahala tramitatuko dira eta aurkeztu ahala erabakiko da haien gainean (deialdian jarritako epearen barruan), aurrekontuan horretarako dirua dagoen bitartean. Eskaera egin eta baldintza guztiak betetzen dituztenei emango zaizkie dirulaguntzak.

AZTERLANA dirulaguntzaren kasuan, enpresa bakoitzeko bakarrik azterlan edo ikerketa bat egiteko emango da dirulaguntza.

50. artikulua. Ebazpenaren edukia

Eskatzaileari jakinaraziko zaion dirulaguntza emateko ebazpenak adierazi behar du laguntza ukatzen edo ematen zaion; eta ematen bazaio, zenbateko dirulaguntza ematen zaion, nola ordainduko zaion eta nola justifikatu behar dituen oinarri hauetan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betebeharrak.

Dirulaguntza onartutzat joko da eskatzaileak emandako dirulaguntzaren jakinarazpena jasotzen duen hurrengo egunetik kontatzen hasi eta 15 eguneko epean dirulaguntzari uko egiteko idatzirik aurkezten ez badu.

51. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura eratu, bideratu eta ebazteko eskumena duten organoak

Jadanik jarduera martxan baldin badago, Udalak egiaztatuko du lokalak eta jarduerak benetan egoera erregularizatuta dutela eta eskatzaileak jarduera garatzeko baldintzak betetzen dituela, eta txosten teknikoa egin ondoren, dagokion Udal Batzorde Informatzaileak dirulaguntza emateko proposamena bidaliko dio alkateari edo hark eskumena eskuordetu dion organoari, erabakia har dezan.



Erabakia hartzeko hiru hilabeteko epea izango du gehienez –eskaera dokumentazio guztiarekin aurkezten denetik kontatzen hasita–.

Epe hori igaro ondoren Udalak eskaeraren baten gainean berariazko erabakirik hartuko ez balu, ulertu ahal izango da ez dela eskaera hori onartu.

Erabakiaren proposamena formulatu aurretik, Udalak beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du Batzorde Informatzailearen bitartez.

52. artikulua. Dirulaguntza emateko helburua onuradunak bete egin duela ziurtatzeko eta jasotako dirua zertan erabili duen adierazteko epea eta modua

Programa honen barruan diruz lagunduko diren gastu guztiak 2026ko abenduaren 1erako amaituta egon beharko dira.

Dirulaguntza ematearen helburua bete egin duela zurrizteko, onuradunak 2027ko urtarrilaren 31ko epemuga izango du.

Justifikazioa kontu-garriketa delakoaren bidez egingo da eta, horretarako, ondoko dokumentu hauek aurkeztu beharko dira Bergarako Udaleko Erregistro Orokorrean:

- Laguntza zurrizteko dokumentua behar bezala beteta (F0117B).
- Dagokion programaren kostua, jatorrizko fakturak, eta gastu-ordainketen jatorrizko agiriak, eta gastu guztiak ezarritako epearen barruan egin direla erakutsi beharko da.
- Dagokion programari lotuta sortutako txostenak eta dokumentazioa (Jarduera ekonomikoaren inbertsioarena, Komunikazio diseinuarena, Azterlan teknologikoarena, edota Errelebo-protokoloa eta aholkularitzakoa).
- Helburu berarekin jasotako beste dirulaguntzen agiriak; eta jaso ez balitz, zinpeko aitorpena.
- Udalaren laguntzarekin egindako euskararen egoeraren inguruko balorazioa, Udalak prestatutako inprimakian (Azterlanerako eskatutako dirulaguntzetan soilik).

Halaber, Udalak ofizioz egiaztatuko du Bergarako Udalarekiko ordainketak egunean dituela eta jarduera garatu ahal izateko Bergarako Udalarekiko betebeharrak guztiak betetzen dituela.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

- Foru Ogasunak:
 - . Zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte Segurantzak:
 - . Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean egotea.

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Dagokion Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.



53. artikulua. Dirulaguntzaren ordainketa

Ez da ordainketarik aurreratuko. Onuradunaren aldeko betebeharra aitortu eta ordaindu ahal izateko, derrigorrezko baldintza izango da zuribidea edo justifikazioa oinarri hauetan aurreikusitako moduan eta bertan adierazitako baldintzetan aurkeztea.

Bergara, 2026ko apirilaren 1a

Jarduneko Alkateak